

NO AMEMOS DE PALABRA SINO CON OBRAS EGIN ETA EKIN

“MAISUA”.

LABURPENA. – **“Maisua” pelikula ikusiko dugu.** 1946an, Alberto Manzi gerratik itzuli eta maisu bezala jarduteko lan bila hasten da. Ez da batere erraza izango lortzea, ez duelako gomendiorik. Azkenean, inork nahi ez duen lana aurkitzen du irakasle bezala hiriko erreformatorioan. Ikasleek ez dute ikasterik nahi eta Albertok beraien konfidantza irabazi beharko du.

HELBURUA. Pertsonaien bitartez, balio eta jarrera jakin batzuk ezagutuko ditugu, ahulenekin, sufritzen ari direnekin, azken batean, Jainkoaren kutunenekin bat egiteak bizimoduz aldatzeak, hobeak izateak, gehiago konprometitzeak, anai-arreba izateak ulertzen laguntzen diguten balio eta jarrerak. Jainkoaren begiradatik, gure egintzak, bizitzako gorabeherei aurre egiteko era... aldatu egin behar ditugula konturatu. Jainkoaren eskuetan jarriko gara, bakarka eta gizartean urrats txikiak eman eta aldatu ahal izateko

Pelikulan nabarmendu nahi duguna:

- Estimua, enpatia, baldintzarik gabeko laguntasuna.
- Ahalegina, konfiantza sinesten dugunean, gauzak atera daitezen.
- Aldaketa pertsonala.

Ondorengoan jarri beharko genuke arreta

- Albertoren jarrera bidegabekerien aurrean (ez du ezerk geldiarazten; beti ari da aldaketaren bila)
- Jarrera aldaketa zuzendariaren aldetik.
- Albertoren harremana gazteekin (hurkotasuna, enpatia, entzutea...)
- Norbaitek entzun egiten diela sumatzean, gazteengan antzematen den jarrera aldaketa.



JARDUERAREN GARAPENA PELIKULAREN OSTEAN

1. Gustatu zaigu pelikula?
2. Zein pertsonaiarekin zatoz bat? Aipatu pertsonaia bakoitzaren dohain edo akats nagusia.
Zein pertsonaiarekin lotuko genuke Jesus? Zergatik?
3. Galderak egin eta hauen inguruko adostasun edo desadostasuna erakutsi.
 - Protagonista nagusia izango bazina, berdin jokatuko zenuke?
 - Istorio honetako protagonista Jesus balitz, Albertoren jokaera izango zukeen? Zergatik? Zer aldatuko zukeen? Zergatik?
4. Ideiak batera jarriko ditugu. Pelikularen mezua ondoen adierazten duten ideiak izango dira. **Taldekideren batek esandakoaz bat badatoz, kartulina berdea altxatuko duten; gorria, bat etorri ezk, eta horia, tarteko bidean kokatzen badira.**
 - 1. ideia: Saiatuz eta ahaleginduz gero, nahi duzun guztia lortu ahal izango duzu.
 - 2. ideia: Ez inoiz amore eman. Saiatu behin eta berriz.
 - 3. ideia: Ez fidatu inoiz lehen zirrarez.
 - 4. ideia: Hezkuntzak mundua alda dezake
 - 5. ideia: Ezinbestekoak dira aliatuak gauzak atera daitezen.
 - 6. ideia: Norbaiti benetan lagundu ahal izateko, ezinbestekoa da bere lekuan jartzea.
(Pelikularen mezu nagusia hauxe dela esango diegu, nahiz eta gainerako mezuak ere agertu).
5. Bat datozen argazkiak aukeratu. *Argazki-hitza*
 - Zein argazkik islatzen du, zure ustez, pelikulako alderdirik esanguratsuena?
 - Zein argazkirekin islatuko zenuke bestearekiko maitasuna?
 - Zein argazkirekin islatuko zenuke irmotasuna, egiten dugunarekiko irrika?

- Zein argazkirekin islatuko zenuke Jainkoaren maitasuna, ahularekiko Jesusen maitasuna?
- Zer adierazten digute pelikulako irudi hauek? Lotu ebanjelioan agertzen den irudiren batekin (1. eranskina)

(Egokitzat joz gero, ikusi zein eszena, egoera, pertsonaien zein jarrera lotu daitekeen pasarteetako pertsonaiekin).

6. Pelikulan, hainbat esaldi entzuten da. Hainbat esaldi aukeratu dugu: banantzen eta zatitzen duten harresiaren isla direnak, edo batzen eta lokarriak sortzen diuen zubiaren kulturaren islatzat har daitezkeenak. Hainbat esaldi, pelikulatik harturik badaude ere, gutariko bakoitzaren eguneroko bizitzatik ateratakoak ian daitezke. Irakurri egingo ditugu. **Entzuteaz batera, harresiaren kultura irudikatzen dutela pentsatzen badute, kartulina horia altxatuko dute eta berdea, zubiaren kulturaz ari direla pentsatuz gero.**

Ikus ditzagun banan-banan:

- "Bertan behera utz dezake lana, beste hainbat maiuren antzera"
- "Hemen ikasketek ez dizutela asko balio izango esango ahal zizueten"
- Zuzendaria: "Zer ikusten duzu?"
Alberto: "Haurrak"
- Zuzendaria: "Gaizki ikusita. Gaizkileak dira. Lapurtu, iruzur eta engainatu egin dute. Badago norbait hil duenik ere."
- "Haurrak etorkizuna dira"
- "Ez itxaropen handirik izan. Gehienak oraindik analfabetoak dira"
- "Ikasi irakurtzen eta idazten eta baita zeuon buruz pentsatzen ere"
- "Ergel-koadrila ematen duzue"
- "Haurrek entzutearen plantak egingo dituzte"
- "Benetan etorkizuna dutela sinesten baduzu, ez gelditu"
- "Desberdina zara"
- "Egiteko jakin baterako ordaintzen zaizunez, horixe egin eta listo!"
- "Saiatu behin eta berriz"
- "Beraien platerretan jan behar duzu, beraien oheetan lo egin, erabil itzazu beraien komunak"



7. Alberto Manzi maisuak trebetasun handia du pertsonen alderdirik onena ateratzeko. Erreformatorioko mutilekin ez ezik, zuzendariarekin ere lortzen du. Bera ere preso bizi da kartzela horretan.

Aipa ditzagun egunez egun gure bizitzan agertzen diren pertsonamotak.

Kartulina berdea altxatuko dugu, delako pertsona horrek zuon alderdirik onena ateratzen badu, beraiekin gustura, lasai bazaudete, entzuten bazaituzte...

- Irakaslea
- Ikaskidea
- Adiskidea
- Aita-ama
- Anai-arreba
- Aiton-amona
- Senidea
- Entrenatzailea
- Taldekidea

8. Alberto Manzi analfabetoez inguratuta garatu zuen bere maisu lana eta irakurtzen eta idazten irakatsi zien. Milioi bat lagunetik gora alfabetatu zuen. Ezagutzen du inork analfabetorik? Seguruena inork ez du eskurik altxatuko. Hona hemen datu interesgarri bat: 2014an, ez irakurtzen ez idazten ez zekiten 730.000 pertsona zegoen. Imajinatu, une batez, bat-batean irakurtzeko eta idazteko gaitasuna galdu duzuela. **Ondoren aipatuko ditugun jardueretatik, zer ezingo zenukete egin –edo zailtasun handiak izango zenituzkete egiteko- irakurtzen edo idazten jakingo ez bazenute?.** Aipatzen ditugun jarduerak normaltasunez egiterik ez dagoenean altxatuko dute eskua. Jarduera batzuk beste batzuk baino argiagoak dira eta hainbatek zalantza biztuko die. Jardueren batzuk beste batzuk baino argiagoak dira eta hainbatek zalantza biztuko die. Jardueren ondoan azalpena jarri dugu gorri eta hori boz goraz esan daiteke.

- Pelikula ikusi. **Hau, printzipioz, arazorik gabe.**
- Telefonoz hots egin. **Ez dituzte zenbakiak ezagutzen, beraz, zail egingo zaie markatzea.**

- Musika edo pelikulak jaitsi internetez. **Nola egingo dute, ba, hori, idazten ez badakite?**
- Telebista ikusi. **Baina urrutiko agintea erabili gabe.**
- PlayStation delakora jolastu. **Printzipioz, arazorik gabe.**
- Agenda erabili. **Ezinezkoa. Memoria erabili beharko lukete!**
- Ordaindu. **Irakurtzen eta idazten ez dakienak ez daki kontatzen ere; beraz, fidatu egin behar du, ondo kobratuko diotela-eta.**
- Gidatu. **Baina gida-baimenik gabe, ezin izango dutelako teorikorik gainditu. Beraz, poliziak harrapatuz gero, kartzelara joan daitezke.**
- Zinera edo San Mamesera joan eta dagokion eserlekuan eseri. **Ez luke jakingo zein den beraien ilara eta eserlekua. Makaleko saltsa! Gainerako guztiek eseri beharko lukete eta, gero, hutsik den lekuan eseri.**
- Beherapenetan edo supermerkatuan eskaintzarik onenak harrapatu. **Azkenean, gehiago ordainduko lukete, ezin dutelako prezioen arteko konparaketarik egin.**

(Adin berekoa izan eta irakurtzen eta idazten dakien norbaitekin alderatuz, egoera txarragoan egongo lirateke idazten eta irakurtzen ez dakitenak).

9. Itun Berriko pasarteak banan-banan irakurri eta proiektatu egingo ditugu. Elkarrizketan jardungo dugu delako pasarte horrekin lotu daitezkeen pelikulako eszenen, egoeren, pertsonaien jarreraren... inguruan:

- **Jesus emakume adulteriogilearekin eta** (*Jn 7,53-8,11*)

“Zuetan bekaturik gabe dagoenak jaurti diezaiola lehen harria”

Pelikulan: Albertoren eta erreformatorioko zuzendariaren arteko aldea hasieran. Ezin dugu bestea epaitu ezin garelako bere lekuan jarri. Errukitik sortzen da onbideratzeko gaitasuna.

- **Masail batean jotzen zaituenari** (*Lk 6, 27-35*)

“Baina zuei, entzuleoi, hau diotsuet: Maitatu etsaiak, egin ongi gorroto dizuetenei, bedeinkatu madarikatzen zaituztetenak, egin otoitz izen ona kentzen dizuetenen alde. Masail batean jotzen zaituenari eskaini bestea ere; soingainekoa kentzen dizunari, ez ukatu soinekoa ere.”

Pelikulan: Albertok ez die mutilen irain eta gorroei erantzuten; eta une batean, zera diotse: "Ez gara etsaiak"

- **Adiskide tematiaren parabola (Lk 11, 5-8)**

"Gero, esan zien: «Eman dezagun zuetako batek adiskide bat duela eta gauerdian datorkiola, esanez: "Adiskidea, emazkidak hiru ogi, bihurtuko ditiat eta; Lagun bat etorri zaidak bidaian eta ez zeukaat ezer eskaintzeko". Eman dezagun bestek barrutik erantzuten diola: "Utz nazak bakean, atea itxia zegok eta haurrak eta neu oheratuak; ezin naitekek ematera jaiki". Hona nik esan: Adiskidea duelako ez bada ere, aspergarri izan ez dakion behintzat, jaiki eta eman egingo dio behar duena."

Pelikulan: Amore ez eman ez eta behin eta berriz saiatuz, Albertok hainbat gauza zuzen eta on lortzen du: lana ematen dionarekin hasieran, erreformatorioko zuzendariarekin gero...

- **Aita errukitsuaren eta bi semeen parabola (Lk 15, 11-32)**

"Baina hark erantzun zion aitari: "Hainbeste urte da zure agindu bat ere sekula huts egin gabe zerbitzatzen zaitudala, eta ez didazu egundaino antxume bat ere eman, lagunekin festa egiteko; eta, horko zure seme hori, zure ondasunak emagalduekin jan dituen hori, etorri dela eta, zekor gizendua hil duzu". Aitak erantzun zion: "Seme, zu beti nirekin zaude, jeta nire guztia zeurea duzu! Baina egoki zen poztu eta festa egitea, zure anaia hau hilda baikenuen eta piztu egin zaigu, galdua genuen eta aurkitu egin dugu!"

Pelikulan: Alberto ez da zuzentasun hutsaren bila ari; pertsona sendatu egingo duen errukiaren bila dihardu. Sinetsi egiten du mutilengan eta aukera berriak eskaintzen dizkie. Eta zorionekoa da eraldaketarako bideari ekiten diotela ikusten duenean.

- **Pauloren hitzak: "Poztu pozez daudenekin; egin negar negarrez daudenekin"**
(Erm 12,15)

Pelikulan: proposaturiko 8. ariketaren amaierarekin lotu daiteke. Albertok zuzendariari esaten dio: "Beraien platerretan jan behar duzu, beraien oheetan lo egin, erabil itzazu beraien komunak". Besteari lagundu ahal izateko, bere lekuan jarri behar dugu, berak bizi duena bizi, enpatizatu...

- **Jesusen hitzak bere oinak garbitzen dituen emakume damutuari (Lk 7,50)**

“Zeure sinesmenak salbatu zaitu; zoaz bakean”

Pelikulan: Albertok beraiengan sinesten duela erakusten duenean hasten dira gazteak aldatzen. Orduan, gazteek konfiantza berreskratzen dute beraien buruarengan eta hobetzeko bide neketsuari, ahalegin asko eskatuko dien bideari ekiten diote.

10. Lehen, pelikulan esaten den hainbat esaldi aipatu dugu. Esaldi bat, oharkabe pasatzen da. Gutxienez bi aldiz ikusi behar da pelikula, esaldi horretaz jabetzeko. Eta ‘pause’ delakoari ematen badiozu bakarrik irakur daiteke. Letra handiekin idatzita dago mutikoak giltzaperatuta dauden lekuko horma batean. Nazaretoko Jesusen esaldia da: **“Agindu berri bat ematen dizueta: elkar maita dezazuela. Nik maitatu zaituztedan bezala, maitatu zuek ere elkar.” (Jn 13, 34)**

Pelikulan, behin eta berriz agertzen da maitasunaren kontuak, baina benetako maitasunarena, hau da, egitez erakusten dena.

Une batean, hauxe diotso Alberto Manzik zuzendariari: “Beraien platerretan jan behar duzu, beraien oheetan lo egin, erabil itzazu berain komunak”

Orduan, zuzendaria mutikoen jantokira doa eta jaten ari diren zopa bera eskatzen du beretzat. Datatu eta zera dio: “Eskasa baino eskasagoa da! Deitu berehala sukardariari eta etor dadila nire bulegora!”

(Jesusek, Frantzisko Aita Santuak Behartsuen Munduko Egunerako esan zuenaren bitartez eskatzen diguna da Albertok zuzendariari eskatzen diona: on egitea ez da batzuen edo besteen kontua bakarrik. On egin behar dugu Alberto Manziren antzera eta gu baino zoritxarrekoagoak direnen ondoan egon behar dugu)

Behartsuak, bakarrik daudenak, inoren laguntzarik ez dutenak... dira kutunenak Jesusentzat eta geuretzat ere berdín izan daitezela nahi du. Eta egiten duguna benetan egin dezagula, hitzez eta batez ere egitez, eginez eta ekinez, goiburuan esaten denez. Zoritxarreko diren eta Jainoaren kutunen diren horiengandik gertu egoteko eskatzen digu Jesusek.

- Egiten dut? ¿Nola?
- Landutako guztiaren haritik, zein dei egiten dit Jesusek? Zer daramat? Zertan aldatu edo hobetu beharko nuke?

Neska-mutikoei denbora eman hausnartu eta kartulina batean idatz ditzaten mundua aldatzeko eta Jesusen atzetik jarraitzeko ezinbestekoak diren jarrerak edo egintzak?

(Amaitzeko, gogoan izan Jesusi ere "Maisu" esaten ziotela. Hausnarketa eragin daiteke Jesusen irakaspenen eta egintzen inguruan, bere helburua Aita onaren seme eta alba guztiontzat gizatasunez beteriko bizitza suspertzea zela ondoriozta desaten. Hitzez eta egitez erakusten digu zer nolako hartu-emana zuen Jainko Aitarekin. Jesusekin hartu-emana badugu, ez gara mundutik bakartzen, ezta gutxiago ere, harreman horrek munduan murgiltzen gaitu, bete-betean bizitzeko eta gainerakoei osotasuna.)

1. Eranskina



